



ITURRI AKADEMIKOAK ERABILTZEKO, AIPATZEKO ETA ERREFERENTZIATZEKO GIDA

M. Carmen Encinas Reguero
Irene Balza Tardaguila
Argia Langarika Rocafort
Miriam Peña Zabala
Ana Urrutia Rasines
Teresa Zamalloa Echevarria


Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

Izenburua: Iturri akademikoak erabiltzeko, aipatzeko eta erreferentziatzeko gida.

Lehenengo edizioa: 2021ko abendua

Edizioa eta maketazioa:

M. Carmen Encinas Reguero

Irene Balza Tardaguila

Argia Langarika Rocafort

Miriam Peña Zabala

Ana Urrutia Rasines

Teresa Zamalloa Echevarria

ISBN: 978-84-09-26581-7



Gida hau Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) finantzatutako Hezkuntza Berrikuntza Proiektu baten (PIE HBT94 / 19-20) barruan prestatu da. Honen bidez, gure esker ona isladatzen dugu, Berrikuntza, Gizarte Konpromiso eta Kultur Ekintzarako Lehendakariordeari, SAE-HELAZen bidez proiektu hau diruz lagundu duena.



Aurkibidea

Sarrera

1

Iturri akademikoak [1]

- 1.1. Zer den eta zer ez den iturri akademikoa [1]
- 1.2. Zer den aipua eta zer den erreferentzia [1]
- 1.3. Zergatik eta zertarako erabili iturri akademikoak [2]
- 1.4. Iturri motak eta haien ezaugarri nagusiak [2]
- 1.5. Non eta nola bilatu iturri akademikoak [4]
- 1.6. Zer diren APA arauak [7]
- 1.7. Nola erabili arau akademikoak plagioa sahiesteko [7]
 - Zer den plagioa eta zer motatako plagioak dauden [7]
 - Nola sahiestu plagioa [8]

2

Aipuak sartzea testuaren gorputzean [9]

- 2.1. Nola aipatu iturriak [9]
- 2.2. Hitzez hitzeko aipuak (zuzenak) eta hitzez hitzekoak ez direnak (zeharkakoak) [13]
- 2.3. Iturri primarioen eta sekundarioen aipuak [16]
- 2.4. Laburpen taula [18]

3

Amaierako erreferentziak edo bibliografia osatzea [19]

- 3.1. Amaierako erreferentzien atalaren ezaugarriak [19]
- 3.2. Erreferentzia guztien elementu komunak [19]
- 3.3. Nola erreferentziatu liburuak edo monografiak [23]
- 3.4. Nola erreferentziatu aldizkari zientifikoetako artikulua [25]
- 3.5. Nola erreferentziatu liburu kapituluak [26]
- 3.6. Nola erreferentziatu master amaierako lanak eta gradu amaierako lanak [27]
 - Argitaratu EZ diren tesi eta lan akademikoak [28]
 - Online argitaratu diren tesi eta lan akademikoak [28]
- 3.7. Nola erreferentziatu klaseko apunteak eta aurkezpenak [28]
- 3.8. Nola erreferentziatu baliabide elektronikoak (bloga, web orria, etab.) eta ikus edo soinu baliabideak [29]

4

Non bilatu zalantzak argitzeko informazioa [32]

- 1 ERANSKINA: Nola aipatu eta erreferentziatu datuak falta direnean [33]
- 2 ERANSKINA: Aldaketak APA arauetan (6. ediziotik 7.ediziora) [34]

Sarrera

Kontsulta gida labur hau egiteko ideia sortu da Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasle talde batean, ikusirik iturri akademikoak erabiltzean eta horiek aipatzeko eta erreferentziatzeko moduan sortzen diren zalantza eta akats ugariak.

Akats asko ulergarriak badira ere prestakuntza akademikoko prozesu batean, beste batzuek erakusten dute iturri akademikoak erabiltzeko oinarritzko arauen inguruko ezjakintasuna, eta agerian uzten du ikasleen alfabetatze akademikoko prozesuan sakontzearen komenigarritasuna.

Hori dela eta, gida honen helburua da ikasleei labur, zuzenean eta errazki ematea iturriak behar bezala erabiltzen laguntzeko oinarriak, dagokion moduan aipatu eta erreferentziatu ditzaten, American Psychological Association (APA, 2019) erakundearen arauen 7. edizioaren arabera. Badakigu zalantza asko geldituko direla erantzunik gabe, eta gai honetan sakondu nahi duenak amaierako bibliografian jasotako lanak kontsulta ditzake.

Gida hau egin da UPV/EHUK finantzaturako Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektu baten baitan (HBP HBT94/19-20). Eskerrak eman nahi dizkiogu Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzari, diruz lagundu baitu proiektua SAE-HELAZen bidez.

1

Iturri akademikoak

1.1. Zer den eta zer ez den iturri akademikoa

Iturri akademikoa honela definitzen da: normalean berrikusi egin den eta, ondorioz, adituek baliozkotu duten informazio iturri bat, lan akademiko bat egiteko kontsultatu eta erabiltzen dena, eta aipatu egin behar dena, arau jakin batzuen arabera.

Iturri akademikoak jada gaia ezagutzen duten pertsonentzat dira, eta arlo bati dagokion hizkuntza tekniko, zientifiko, formal eta espezifikoa erabiltzen dute. Arlo jakin baten (Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza edo Gizarte Hezkuntza) espezialista bihurtzeko bidean zaudenez, kontuan izan behar duzu erabiliko dituzun testuek testu akademikoak izan behar dutela (eta, beraz, espezializatuak), eta ez publiko orokorrari zuzendutako testuak edo dibulgazioko testuak.

Taula konparatibo honetan ikus ditzakezu testu akademikoen eta ez-akademikoen arteko desberdintasun nagusiak.

Iturri akademikoak	Iturri ez akademikoak
Hizkuntza teknikoa eta formala	Hizkuntza ez oso formala eta teknizismo gutxikoa
Eduki sakon eta espezializatuak	Eduki orokorrak eta dibulgaziokoak, publiko orokorrenentzat
Grafikoak, irudiak eta taulak izan ditzakete, azalpenak emateko helburuz beti	Argazkiak eta irudiak izan ditzakete, apaingarri gisa beti
Aipuak eta erreferentzia bibliografikoak dituzte	Bibliografia izan dezakete
Zure lanean aipatzeko moduko datuak ematen dituzte (egilea, izenburua, argitalpen urtea, aldizkariaren izena, argitaletxea...)	Ez dituzte ematen zure lanean aipatzeko moduko datu guztiak
Aurki daitezke unibertsitate biblioteken edo ikerketa zentron katalogoetan, datu base espezializatuetan, Google Akademikoan (kontuz azken honekin)	Aurki daitezke Googlen, Wikipedian, blog pertsonaletan...
Aldizkari zientifikoetan, liburuetan, liburu kapituluetan, monografietan, webgune zientifikoetan (ikerketazentzakoak, unibertsitateak)... sartzen dira	Aldizkari ez-zientifikoetan, blogetan, podcastetan, sare sozialetan... sartzen dira

1 taula. Iturri akademiko eta ez akademikoak.



Zure lana oinarritzen baduzu informazio faltsuan, ez oso fidagarrian edo ez oso teknikoan (iturri ez-akademikoak), lanaren kalitatearen kalterako izango da, kalitate eskaseko informazioa erabiliz galdutako ordu kopurua ez aipatzearen. Funtsezkoa da balio akademikoko iturriak erabiltzea.

1.2. Zer den aipua eta zer den erreferentzia

Aipu bat egitea da egile baten ideiak sartzeko testuaren gorputzean. **Erreferentzia**z mintzo garenean, aipatutako obraren datu guztiez ari gara, gure lanaren bukaerako atalean sartzen direnak (atal horretan zehazten da erabilitako iturri akademiko guztien kokapena). Adibide honetan hobeto ikusiko duzu.

Aipua (testuaren gorputzean):

Adib.:

Viciano *et al.*-ek (2017, 93 or.) eranstean dutenez "el enfoque y la filosofía que la caracterizan la convierte en un medio y apoyo para conseguir incrementar el aprendizaje del alumno, haciendo este más placentero, feliz, interesante y eficaz, es decir, más significativo".

Erreferentzia (dokumentuaren amaieran, erreferentzia bibliografikoen zerrendan):

Adib.:

Viciano, V., Cano, L., Chacón, R., Padial, R. eta Martínez, A. (2017). Importancia de la motricidad para el desarrollo integral del niño en la etapa de Educación Infantil. *EmásF. Revista Digital de Educación Física*, 8(47), 89-105.



Gure kasuan, **APAren arauen 7. edizioa** (2019) erabiliko dugu gure lanean kontsultatutako iturri akademikoak aipatu eta erreferentziatzeko.

1.3. Zergatik eta zertarako erabili iturri akademikoak

Iturri akademikoak erabiltzen ditugu gai jakin batean ikerketa zer puntutara iritsi den jakiteko, horri buruzko iritziak ezagutzeko, hobetu beharreko esparruak identifikatzeko, etab., eta aukera ematen digu horrek gure ideiak aberasteko eta era horretan gure ekarpen pertsonalak beren testuinguruan kokatzeko. Horrela, ikerketa bakoitza aurrekoei gehitzen zaie, eta aurrera egiten dugu ezagutzaren eraikuntzan.

Bestetik, behar bezala aipatzeak eta erreferentziatzeak laguntzen digu gure ideiak beren testuinguruan kokatzen eta gure ekarpenei balioa ematen.

Gainera, aipuak eta erreferentziak erabiltzen dira zintzotasun akademikoagatik; hau da, merezi duen aitortza egiteko aipatutako ideien egileari (plagioa saihesten dugu horrela); halaber, gure testuan aipatu ditugun erreferentziak kontsultatzeko aukera emateko irakurleei.

1.4. Iturri motak eta haien ezaugarri nagusiak

Iturri ugari daude, tipologiaren arabera, eta garrantzitsua da bata bestetik bereiztea eta akademikoak diren ala ez ikustea.

///// **Liburua edo monografia:** ISBN kodea edukitzea du ezaugarri.

///// **Liburu elektronikoa:** ISBN kodeaz gainera, URL dauka (*Uniform Resource Locator*; hots, sarean eskura daitekeen baliabide baten helbide espezifikoa, hura aurkitzen laguntzen duena).

///// **Liburu kapitulua:** hainbat egile dituen liburu koral baten zati da, editoreak, biltzaileak edo koordinatzaileak dituena.

///// **Jardunaldiak, Hitzaldiak, Komunikazioak eta Posterrak kongresuetan:**

modu batean edo bestean erreferentziatzen dira kontuan izanik argitaratu gabe (ISBN/ISSN gabe) edo argitaratuta dauden akta liburuetan edo aldizkarietan (ISBN/ISSN dute).

///// Erreferentzia obrak, hala nola entziklopediak edo hiztegiak.

///// Aldizkariko artikulua: ISSN edukitzea du ezaugarri.

» **Aldizkari elektronikoko artikulua:** DOI (*Digital Object Identifier*) duen artikulua bat izan daiteke, Objektu Digital Identifikatzailea; hau da, sarean artikulua aurkitzeko balio duen kode alfanumeriko espezifikoa eta iraunkor bat.

» DOI gabeko artikulua bat izan daiteke, eta URL lokalizatzailea ematen da, hortaz.

» **Egunkariko artikulua:** sinatuta egon daiteke, egilerik gabekoa izan daiteke, edo online argitaratua ere egon daiteke.

///// Doktorego tesiak, master amaierako lanak, gradu amaierako lanak:

kortxeteen artean adierazten da zer motatako lan akademikoa den (doktorego tesia, gradu amaierako lana, etab.). Lana aurkeztu den erakundearen izena ere agertzen da.

///// Argitaratu gabeko apunteak edo aurkezpenak (PowerPoint, etab.), inprimatuak edo elektronikoak: lan akademikoetan bezala, dokumentu mota eta erakunde akademikoa zehazten dira.

///// Dokumentu juridikoak: halakotzat hartzen dira legeak, araudiak, dekretuak eta, oro har, legegintzako administrazio egintzak.

///// Txostenak: erakundeek eginiko dokumentuak dira.

///// Web orria, bloga, etab.

///// Sare sozialak: Facebook, Twitter, etab.

///// Soinu, ikus edo ikus-entzunezko dokumentuak:

» Musika grabazioa: hainbat euskarritan (CD, binilozko diskoa, DVD, etab.)

» Artelanak, ilustrazioak, mapak, etab.

» Bideoa, filma edo zinta zinematografikoa, telebista programa edo telesaila, dokumentalak, etab.

» Youtube, Vimeo... bideoak.

» Podcast.

» Katalogoak/ liburuxkak.



Jakina, iturri horiez gainera, badira beste batzuk (patenteak, etab.), eta denborarekin beste iturri mota batzuk sortuko dira. Funtsezkoa da hauxe ulertzea: iturriak mugagabeak badira ere, edozein baliabidek ez du balio lan akademiko batean. Garrantzitsua da pixkanaka gaitasuna eskuratuz joatea bereizteko zer den egokia eta zer ez lan akademiko batean.

1.5. Non eta nola bilatu iturri akademikoak


Gaur egun, ezin konta ahala baliabide ditugu lan bat egitean informazioa lortzeko, bai elektronikoak bai paperean (liburuak, aldizkariak...). Hala ere, eskura dugun informazio hori guztia beti ez da erabilgarria unibertsitate lan batean. Unibertsitatean, akademikoak deitzen diren iturriak erabili behar ditugu, testu espezializatu, tekniko eta fidagarriagoak, 1.1 atalean azaldu den moduan.

Iturri akademikoak bilatzeko modurik onena da bibliotekaren katalogoa eta datu base espezializatuak erabiltzea, unibertsitatean bertan eskura ditzakezunak. Googlen eginiko bilaketa orokorrek eta beste bilatzaile batzuek iturri ez-akademiko kopuru handi bat ematen digute, aurretik esan dugun bezala egokiak ez direnak unibertsitate lanetan.

///// UPV/EHUren bibliotekaren katalogoa

Bibliotekaren katalogoa da UPV/EHUren bibliotekak dituen iturri bibliografiko (artikuluak, liburuak...) guztien erregistroa. Beraz, datu base handi bat da, bibliotekak dituen dokumentu guztiak biltzen dituena (paperean inprimatuak eta elektronikoak). Dokumentuak ikusi edo deskargatzeko, zeure burua identifikatu behar duzu UPV/EHUko kide gisa.

UPV/EHUren katalogoak erabiltzen duen bilaketa barra Wordcat Discovery enpresak emandakoa da, eta haren bidez bilaketa sinpleak egin ditzakezu, hitz gakoak sartuz barran, Googlen egiten duzun moduan.



The image shows a screenshot of the UPV/EHU library website. On the left, there is a navigation menu titled "Biblioteka" with the following options: "Informazioa aurkitzeko", "» Nola bilatu", "» Bibliotekako katalogoa", "» Datu-baseak eta E-Baliabideak", "» Oñatiko IISJko Biblioteka", "» Hemeroteka", "» Bestelako baliabideak", and "Biblioteka nola erabili". To the right, there is a banner for "ehuBiblioteka" featuring three images of library buildings. Below the banner, there is a search section titled "Edozein material mota" with a search box labeled "WorldCat Discovery-n Bilatu". A blue "Bilatu" button is next to the search box. Below the button, there are links for "Bilaketa aurreratua" and "Laguntza".

1 irudia. UPV/EHU bibliotekako bilatzailea.

Halaber, bilaketa aurreratua ere egin ditzakezu, terminoak konbinatuz, bilaketa daten arabera mugatu, dokumentuak soilik formatu elektronikoan edo fisikoan aukeratu ...

Bilaketa aurreratua

The screenshot shows an advanced search interface with three rows of search criteria:

- Row 1: "Bilaketa aurkibidea" (Gako-hitza) and "Bilaketa terminoa" (empty text input).
- Row 2: "Operadore" (ETA), "Bilaketa aurkibidea" (Izenburua), and "Bilaketa terminoa" (empty text input).
- Row 3: "Operadore" (ETA), "Bilaketa aurkibidea" (Egilea), and "Bilaketa terminoa" (empty text input).

On the right side, there are filter options:

- Datu-baseak** 34 aukeratuak: Includes a button "Aldaketak gorde" and "Berrasieratu".
- Datu-baseak bilatzen** 34 aukeratuak: Includes a checked checkbox for "ACM Digital Library" with a description: "ACM aldizkari eta berripaper artikuluen eta biltzar-akten aipamenak eta testu osoak."

2 irudia. UPV/EHU bibliotekako katalogoko bilatzaile aurreratua.

Katalogoaren abantaila handiena da aukera ematen digula bilaketa bat erraz egiteko, eta aukera ematen digu, halaber, dokumentu elektroniko eskuratzeko edo dokumentu fisikoa lokalizatu edo haren erreserba egiteko. Hala eta guztiz ere, badu eragozpen bat: hainbeste baliabideren artean bilatzean (datu base, dokumentu elektroniko, paperean inprimatutako dokumentu... kopuru handia), batzuetan tresna ez da oso zehatza eta gure lanean garrantzitsuak ez diren emaitza asko ematen ditu (liburuak, artikulua...). Katalogoa lanabes on bat da gai bati buruzko lehen bilaketa bat egiteko, ondoren gaian sakontzeko bilaketak eginez datu base espezializatuetan.

Katalogoan sartzeko: <https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/>

Katalogoaren oinarritzko erabilerari buruzko tutoriala:

<https://t.co/HK3nTQSYHg?amp=1>

////// UPV/EHUren datu base espezializatuak

Datu base bibliografikoak dira jakintza arlo edo tematika bati buruzko argitalpen zientifiko eta teknikoan (aldizkarietako artikulua, liburuak, tesiak, kongresuen aktak...) bildumak, eta helburutzat dute dagokion arloari buruzko informazio guztia biltzea.

Datu base horietan bilatzeko, bibliotekaren web orrian sartu behar duzu eta klik egin Datu baseak eta e-baliabideak aukeran. Tituluen zerrenda alfabetikoan, bilaketa egin nahi duzun datu basea hautatu behar duzu.



3 irudia. UPV/EHU bibliotekako e-baliabide eta datu baseak.

Honako hauek dira hezkuntza alorreko zure lanetan erabil ditzakezun datu base nagusiak:

- » ERIC (ingelesez).
- » Teacher Reference Center (ingelesez).
- » Education Database (ingelesez).

Hezkuntzari buruzko edukiak aurki ditzakezu ere datu base orokorretan edo beste arlo batzuetakoetan:

- » **Dialnet:** Nahiko orokorra. Dokumentu gehienek gaztelaniaz.
- » **Scopus:** Nahiko orokorra. Erreferentziak aurki ditzakezu bai ingelesez bai gaztelaniaz.
- » **ProQuest:** Diziplina anitzekoa eta dokumentuak hainbat hizkuntzatan dituena. Atal batean, doktorego tesiak eta tesinak bilatu eta deskargatu daitezke.
- » **PsycInfo (APA PsycInfo):** Psikologia arlokoa. Ingelesez.
- » **Web of Science (WOS):** Nahiko orokorra. Erreferentziak aurki ditzakezu bai ingelesez bai gaztelaniaz.
- » **Medline:** Medikuntza arlokoa, nahiz eta hezkuntzari buruzko dokumentuak ere aurki ditzakezun, hezkuntza bereziari buruzkoak batez ere. Ingelesez.
- » **Pubmed:** Medikuntza arlokoa, nahiz eta hezkuntzari buruzko dokumentuak ere aurki ditzakezun, hezkuntza bereziari buruzkoak batez ere. Ingelesez.



Datu baseetan bilatzearen abantaila nagusia da informazio oso zehatza aurkitzen dela sakondu nahi den gaiari buruz.

///// Google Akademikoa

Google Akademikoa da emaitza kopuru handi bat ematen duen bilatzaile simple bat. Azken urteetan hobetu egin da nabarmen bilatzaile honen kalitatea eta ikertzaile askok erabiltzen dute informazioa bilatzeko beren ikerketetan. Dena dela, litekeena da aurkitutako dokumentu batzuk akademikoak ez izatea eta, beraz, baloratu egin beharko dugu nahikoa kalitaterik baduten gure lanean sartzeko.

Linka Google akademikora: <https://scholar.google.es/schhp?hl=es>

GOGORATU

Erabili beti iturri akademikoak zure lanean. Hautapen bibliografiko on batek aukera emango dizu gehiago eta hobeto ikasteko, eta kalitatea emango dio zure lanari.

Iturri akademikoak erabiltzen ari zarela ziurtatzeko modu errazena da bilaketa egitea bibliotekaren katalogoan eta datu base espezializatuetan.

Ez bilatu bakarrik Google Akademikoan. Erraz erabiltzen bada ere, kontuz! Dena ez dago Google Akademikoan. Bibliotekaren katalogoak eta datu baseek eskaintzen dituzte Google Akademikoan aurki ezin daitezkeen baliabide asko.

Bibliotekaren katalogoan eta datu baseetan sartzeko, eta horietan dokumentuak eskuratzeko (liburuak, artikulak...), zeure burua identifikatu behar duzu UPV/EHUko kide gisa.

Gehiago jakin nahi baduzu katalogoan eta datu baseetan bilatzeko moduari buruz:

Bibliotekak formakuntza eskaintzen die ikasleei. Galde izeaiezu eta eman izena ikastaroren batean: <https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/prestakuntza-ikastaroen-formularioak>

Bibliotekaren web orriak informazioa ematen du ere bilaketak egiteko moduari buruz: <https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/gradu-ko-ikasleen-prestakuntza>

Zalantzarik baduzu, galdetu bibliotekari. Laguntzeko daude.



1.6. Zer diren APA arauak

Aurreko ataletan azaldu dugunez, funtsezkoa da iturri akademikoak erabiltzea lan akademiko bat egiteko. Nolanahi ere, iturri horiek erabiltzean, galdera da nola egin behar bezala haien aipua eta erreferentzia.

Modu asko daude aipua eta erreferentzia akademikoak egiteko. Garrantzitsua da dokumentu bat modu berean aipatzea eta erreferentziatzea beti, eta lan batean zehar ez aldatzea modu hori.

Bilboko Hezkuntza Fakultatean erabaki da APA arauak erabiltzea beti, munduan zabalduen dauden arauetako batzuk direlako.

APA akronimoa *American Psychological Association* erakundearena da. Erakunde horrek artikulatu bat argitaratu zuen 1929an aipua eta egiteko modu estandar bat proposatuz, eta horrela sortu ziren APA arauak. 1929az goztik, arauak garatuz eta perfektionatuz joan dira.

Azken urteotan, APA arauen seigarren edizioa erabili dugu Bilboko Hezkuntza Fakultatean, 2009an argitaratu zena. Duela gutxi, zazpigarren edizioa atera da (2019), azkena eta berriena.

1.7. Nola erabili arau akademikoak plagioa saihesteko

////// Zer den plagioa eta zer motatako plagioak dauden

Plagio akademikoak aho bateko definiziorik ez badu ere, honela definitu izan da oro har: iturri batetik datozen ideiak erabiltzea iturri horretakoak direla esan gabe. Hau da, plagiatzea da besteren ideiak erabiltzea norberarenak balira bezala.

Plagioak askotarikoak izan daitezke. Hona hemen plagio mota batzuk¹:

» **Klonazioa edo *ghost writer***: beste pertsona baten lana aurkeztea norberarena balitz bezala.

» **Fotokopia edo 'kopiatu-itsatsi' (*copy-paste*)**: iturri baten esaldiak edo paragrafoak kopiatzea iturri edo paragrafo horiek ia aldatu gabe.

¹ Saillkapena lan honetan dago inspiratuta neurri batean: Tripathi, R. eta Kumar, S. (2009). Plagiarism: A Plague. En J. Arora (Ed.), *E-content Management: Challenges and strategies: 7th International CALIBER-2009: Proceedings of the conference* (pp. 514-519). Information and Library Network Center. Pondicherry University.

» **Mosaikoa:** hainbat iturritatik kopiatzea, bat datozen esaldiak edo paragrafoak elkartuz.

» **Remix edo patchwriting:** iturri batetik edo gehiagotik kopiatzea, testuak aldatuta (aldatuta hitz gakoak, elementuen ordena esaldian, etab.).

» **Autoplagioa:** aurretik eginiko lanen pasarteak kopiatzea eta lan berri batean aurkeztea, *ad hoc* sortu izan balira bezala.

» **Itzulpena ('itzulpen-plagioa'):** testu bat hartzea hizkuntza batean eta beste hizkuntza batera itzultzea (aldatu gabe edo aldaketa txikiak eginez), emaitza aurkeztuta norberaren lana balitz bezala eta jatorrizko iturria aipatu gabe.



Batzuetan, iturri akademikoak gaizki erabiltzeagatik sor daiteke plagioa. Adibidez, iturri bat aipatzen denean paragrafo batean eta iturri hori hurrengo paragrafoetan ere erabiltzen denean, berriro ere haren aipua egin gabe. Nolanahi ere, zeinahi ere izanik zioa, nahita edo nahigabe eginda, plagioak beti dakar penalizazio akademiko larri bat. Gogoan izan plagioa egitea nahikoa dela baliorik gabe uzteko zure lana.

///// Nola saihestu plagioa

Plagioa saihesteko, garrantzitsua da aintzat hartzea jarraibide hauek:

Ororen gainera, lan akademiko batek originala eta ikasi dugunaren isla izan behar du. Oinarrizkoa da bibliografia irakurtzea, baina bibliografia tresna bat besterik ez da, lagundu egin behar diguna gure ideiak garatzen eta ideia horiek dagoeneko sortutako ezagutza zientifikoan oinarritzen.

Funtsezkoa da zintzo jokatzeko. Iturri akademikoak erabili daitezke (eta erabili egin behar dira), baina iturri batetik hartutako ideia guztiak modu egokian aipatu behar dira. Laburtu ideiak zure hitzekin eta aipatu beti haien jatorria eta egileak.

Esparru teoriko eta kontzeptual propioa eraiki behar duzu, zuk eginiko lanarekin koherentea. Beraz, kontu handiz hautatu eta egituratu behar duzu bilduz joan zaren informazioa, beste egile batzuen ideien nahas-mahas edo pot-pourri bat egin ordez.

Errespetatu egin behar duzu beti testuen jatorrizko zentzua. Hots, ezin duzu hartu esaldi bat iturri batetik eta erabili zure lanean justifikatzeko edo esateko jatorrizko testuan esaten ez zuen zerbait.

Erabili behar bezala iturriak eta aipa itzazu beti arauen arabera. Batzuetan plagioa sor daiteke aipamen arauak ondo ez aplikatzeagatik.

Osatu erabilitako iturri guztien erregistroa. Askotan, hainbat lanetatik hartutako ideiak erabiltzen ditugu eta, erregistrorik egin ez badugu, litekeena da ez gogoratzea nondik atera ditugun edo, are gehiago, beste lan batetik atera ditugula, nahigabeko plagioa eginez horrela.

Ondoko estekan plagioari buruzko UPV/EHUko araudia eskura dezakezu: <https://www.ehu.eus/documents/2100129/0/6.-+a%29++Protocolo+plagio+-+EUSK.pdf>



Ez ahaztu aipatzea ere beste iturri batzuetatik ateratako irudien, grafikoaren edo taulen jatorria eta egileak.

2

Aipuak sartzea testuaren gorputzean

2.1. Nola aipatu iturriak

///// Zergatik?

Indartu egin behar dituzu zure baieztapenak beste egile batzuen azterlanak edo ideiak aipatuz. Horrek sendotasuna emango die zure argudioei eta kalitatea zure lanari. Gainera, horrela ez duzu plagiorik egingo eta interesgarriak zaizkion gaiei buruzko erreferente argiak emango dizkiozu irakurleari.

///// Nola?

Garrantzitsua da aipua ondo txertatzea testuaren idazketan. Bi aukera daude:

1. Egilea testuaren esaldi batean aipatzen denean (aipu narratiboa):

Adib.:

Transferentziaren garrantzia azaltzen da Cummins-ek (1981) formulatutako hizkuntza interdependentziaren hipotesiaren bidez, zeinaren arabera...

Bassedas *et al.*-en arabera (2001), behaketa da haur hezkuntzan ebaluazioa egiteko erabiltzen den baliabide nagusia...

- › Gomendatzen da EZ sartzea izenaren inisialak (ikus FAQ atal honetan bertan).
- › Obraren urtea parentesien artean idazten da.

2. Egilea aipatzen EZ denean testuaren idazketan (aipu parentetikoa):

Adib.:

Egile batzuk eszeptikoak dira ezagutza esplizituak hizkuntzen ikaskuntzan eragin positiboa duela aldeztzen duen ideiarekiko (Andrews, 2005; Williams, 2005). Hala eta guztiz ere, ...

Mugimenduak askotarikoak dira, bakunenetatik hasi eta trebetasuna eskuratu ahala egiten diren mugimendu konplexuetaraino (Aucouturier, 2004).

- › Ez dira sartu behar izenaren inisialak (ikus FAQ atal honetan bertan).
- › Bai egilearen abizena bai urtea parentesien artean idazten dira, esaldi baten barnean edo haren amaieran (inoiz ez puntuazio marken ondoren!!!). Bi egile direnean 'eta' juntagailua sartzen da azkenaren aurretik.² Bi egile baino gehiago direnean, lehenengo egilearen abizena eta ondoren *et al.*³ idatziko da aipu guztietan.

² APA arauak erabilia, gomendatzen da koma bat jartzea 'eta' juntagailuaren aurretik.

³ *et al.* latinezko *et alii* esapidearen laburdura da eta 'eta beste batzuk' esan nahi du. Idatz daiteke ere 'eta beste batzuk', baina kasu horretan ez da letra etzanean idazten, ez delako latinezko esapide bat.

› Egile batek baino gehiagok lan desberdinetan defendatu duten ideia bat aipatzen denean, edo egile batek hainbat obratan defendatutakoa, lan horien guztien aipua egin daiteke parentesi berberen barruan, ‘;’ markaz bereizita eta alfabetikoki ordenatuta.

Zure lana idaztean erabil ditzakezu bai aipu narratiboak bai parentetikoak. Hala ere, efektu desberdinak dituzte. Aipu narratiboak erabiltzen dira batik bat nabarmentzeko egileak eta horiek gai baten inguruan duten iritzia; parentetikoek, aldiz, garatzen den ideia bera nabarmentzen dute, egileen sostengua duena.

Gomendagarriena da aipu parentetikoak aukeratzea, egile batek gai jakin batean duen iritzia nabarmendu nahi duzunean izan ezik. Horrela,

- › Argiago ikusiko da zure ideien garapena;
- › Egileak eta haien azterlanak ideia horien euskarri edo justifikazio bihurtuko dira;
- › Errazago eta arinago irakurriko da.

FAQ

1.

Dokumentuak egile bat baino gehiago dituzenean, denak aipatu behar dira?

Dokumentuak egile bat edo bi dituzenean, denak aipatzen dira.

Dokumentuak hiru egile edo gehiago dituzenean, lehenengoa bakarrik aipatzen da, eta *et al.* laburdura eranstean zaio.

2.

Dokumentuak egile bat baino gehiago dituzenean, zer hurrenkeratan aipatu behar dira?

Dokumentu baten egileak beti aipatzen dira dokumentuan agertzen diren hurrenkeran; hots, sinadura hurrenkeran.

3.

Egile eta argitalpen urte berberak dituzten dokumentuak aipatzen direnean, nola bereizten dira?

Letra bat erantsita (a-z, ordena alfabetikoan).

Adib.:

Cassany (1999a)

Cassany (1999b)

Gogoratu modu berean bereizi behar dituzula erreferentzien amaierako zerrendan.

4.

Abizen bereko eta izen desberdineko egileak dituzten obrak aipatzen direnean, nola bereizten dira?

Inizialak erabiltzen dira aipuan.

Adib.:

I. García (2015) ... M. García (2018) ...

5.

Zer egin behar da egileak pertsonak ez direnean, erakundeak baizik?

Erakundearen izena eta data idazten dira.

Lehenengo aldiz aipatzean:

Aipu narratiboa:

Adib.:

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME, 2016) kalkuluen arabera, 422 milioi helduk zuten diabetesa munduan 2014an.

Aipu parentetikoa:

Adib.:

422 milioi helduk zuten diabetesa munduan 2014an (Osasunaren Mundu Erakunde [OME], 2016).

Hurrengoetan aipatzean:

Aipu narratiboa

Adib.:

OMEren arabera (2016), diabetesa ia bikoiztu egin da urte horretatik.

Aipu parentetikoa:

Adib.:

Diabetesa ia bikoiztu egin da urte horretatik (OME, 2016).

6.

Eta ez badakigu nor den dokumentuaren egilea?

1. Dokumentua anonimo gisa identifikatuta dagoenean, 'Anonimoa' eta argitalpen urtea idazten dira.

Adib.:

(Anónimoa, 2019)

2. Sinatu gabe dagoenean edo ez dakigunean nor den dokumentuaren egilea, nahiz eta ez den esaten anonimoa denik, izenburua aipatzen da.

Aldizkari artikulua bat denean edo liburu kapitulu bat, komatxoaren artean idazten da izenburua.

Adib.:

("Understanding Sensory Memory", 2018).

Liburu bat edo dokumentu independente bat denean (hau da, obra handiago baten barruan ez dagoenean), izenburua letra etzanean idazten da, erreferentzien zerrendan agertzen den bezala.

Adib.:

(Interpersonal Skills, 2019).

7.

Zer data idatzi behar dut aipuan?

Aipatutako obraren argitalpen urtea idatzi behar da beti data gisa (inoiz ez dokumentuaren harrera edo onarpen data).

8.

Nola egin aipua obrak ez badu datarik?

d.g. (datarik gabe) idazten da dataren orde.



Argitaratutako dokumentu gehienek data dute, datarik gabe aurkitu baditugu ere datu base edo orrietan (Researchgate, Academia, eGela,...). Beraz, dokumentuaren argitalpen data bilatzen saiatu behar dugu beti.

9.

Noiz aipatzen dira orrialde zenbakiak?

1. Orrialde zenbakiak EZ DIRA IDATZI behar dokumentu oso bat aipatzen denean (liburu oso bat, artikulua oso bat, etab.).

2. Orrialde zenbakiak IDATZI EGIN BEHAR DIRA dokumentu batetik hartutako hitzez hitzezko aipu bat sartzen denean.

or. laburdura erabiltzen da orrialdeak aipatzeko.

Aipuak orrialde bat baino gehiago izanez gero, marratxo batez bereizten dira zenbakiak (34.-35. or.), edo koma baten bidez, orrialdeak ondoz ondokoak ez direnean (29., 67. or.).

Hitzez hitzezko aipu bat sartzen ez bada ere, gomendagarria da (ez ezinbestekoa) orrialde zenbakia idaztea testu handiago baten zati bat aipatzen denean (esaldia, paragrafoa, ideia, etab.). Beti bezala, irizpide honen alde egiten baduzu, koherentziagatik lan osoan erabili beharko duzu.

Adib.:

“Zayas Hernando (2012, 76. or.) gai honi buruz mintzo da...”.

Adib.:

“Fenomeno gramatikalek zentzua hartzen dute agertzen diren testu motaren helbururako balio dutenean (Alexopoulou, 2010, 102.-103. or.)”.

10.

Dokumentu baten ideia bat aipatu nahi dudanean baina jatorrizkoa ez dudanean, zer egin behar dut?

Hoberena izango litzateke dokumentu primarioa (jatorrizkoa) lortzea, irakurtzea eta modu konbentzionaletan aipatzea. Hori egiterik ez badugu (adibidez, deskatalogatuta dagoelako edo ulertzen ez dugun hizkuntza batean dagoelako), modu sekundarioan aipatu daiteke, jatorrizko dokumentuaren egilea eta urtea aipatuta, baita eskura dugun dokumentuaren egilea eta urtea ere.

Adib.:

Jatorrian, Klasebarneko Korrelazio Indizearen 6 eredu sortu ziren (KKI) (Shrout eta Fleish, 1979, Weir-ek aipatua, 2005).

Adib.:

Shrout eta Fleish-ek (1979, Weir-ek aipatua, 2005) Klasebarneko Korrelazio Indizearen (KKI) 6 eredu sortu zituzten.

Ikus 2.3 atala.

OHIKO AKATSAK

1.

Aipatutako dokumentuaren izenburua sartzea (izan liburua, artikulua...):

Adib.:

Peñak (2019) baieztatzen du “Del museo al aula: propuesta para la creación de prácticas artístico-didácticas entre iguales” izeneko bere artikuluan...

2.

Aipua ez errepikatzea hala egin behar denean.

Gogoratu: paragrafo berean ez daudenean edo testuingurua dela-eta obra bera dela ulertzen ez denean, errepikatu behar da aipua.

3. Aipu parentetikoa puntuaren ondoren kokatzea.

Adib.:

...eskarmentu handiena duten irakasleek baieztatzen dute abestea oso modu egokia dela eskolak hasi eta amaitzeko. (Lines, 2006)

ADI! Kasu bakar bat dago non aipua puntuaren ondoren jartzen den: 40 hitz baino gehiago dituen hitzez hitzezko aipua denean (ikus 2.2 atala).

4. Aipu narratiboan, data idaztea egiletik bereizia.

Adib.:

Cumminsek dioenez (2017),...

Adib.:

Cumminsek dioenez,... (2017).



GOGORATU

Zure lanerako informazioa eman dizuten obra guztiak behar bezala aipatu behar dira testuan, eta erreferentzien amaierako zerrendan sartu behar dira.



2.2. Hitzez hitzezko aipuak (zuzenak) eta hitzez hitzezkoak ez direnak (zeharkakoak)

///// Zergatik?

Artikulu, liburu edo dokumentu batean irakurri dugun ideia bat aipatu nahi dugunean, hitzez hitz egin dezakegu, edo ez. Hitzez hitzezko aipuek zehatz-mehatz erreproduzitzen dute irakurri duguna (hitzez hitz). Era honetako aipuak erabiltzen dira egileak zerbait gogoangarria dioenean edo esandakoa laburra denean. Aldiz, hitzez hitzezkoak ez diren aipuetan, kontsultatutako dokumentuaren ideia hartu eta gure testura egokitzen dugu, beste hitz batzuk erabilia; hau da, parafraseatu egiten dugu. Era honetako ideien abantaila da aukera ematen digula testu bat baino gehiagoren ideiak laburtu eta sintetizatzeko.

///// Nola?

Hitzez hitzezkoak ez diren aipuetan, iturria aipatu behar da 2.1. atalean azaltzen den moduan.

Hitzez hitzezko aipuak sartu behar dira testuan jarraian azaltzen den moduan.

Hitzez hitzeko aipuak:

Aipatu nahi dugun testuak 40 hitz baino gutxiago dituenetan: komatxoaren artean sartu behar dugu aipua gure testuaren barnean, eta aipatu behar ditugu egilea(k), urtea eta orrialdea(k).

Adib.:

Gainera, Domínguezek (d.g., 6. or) dioenez, "el proceso de simbolización se acompaña del placer de comunicar".

Ez da erraza ados jartzea psikomotrizitate terminoa definitzeko, zeren eta, Maldonadok (2008, 8. or.) planteatu bezala, "[e]l concepto de Psicomotricidad ha sido utilizado con diversos significados en diferentes situaciones y contextos".

Testuak 40 hitz edo gehiago dituenen: bereizi egin behar da aipua testuaren gorputzetik. Kasu honetan ez da komatxorik erabiltzen, eta paragrafo berri bat hasten da, koska batekin lehenengo lerroan eta hurrengoetan.⁴

Bi modutan egin daiteke:

1) Egilea eta urtea aipatuz aipatu beharreko testuaren aurretik, eta orrialdea, aipuaren amaierako puntuaren ondoren.

Adib.:

Nahiz eta sortzaileak liburu honetan ez duen praktikaren definizio zehatz bat ematen, García (1995) honako hau dio:

La práctica psicomotriz es un sistema de escucha y acompañamiento que debe ser entendido como un proceso de ayuda que acompaña al niño en su propio itinerario madurativo, que va desde la expresividad motriz y el movimiento hasta el logro de la capacidad de descentración. En ese proceso se busca el desarrollo global del niño, favoreciendo la evolución de las áreas fundamentales tales como la emocional-afectiva, la corporal-motriz y la cognitiva y de simbolización. El niño irá madurando dejando atrás la globalidad, la dependencia y la impulsividad, para alcanzar la diferenciación, la autonomía y la reflexión. (4. or.)

2) Egilea, urtea eta orrialdea aipatuz amaieran.

Adib.:

Horregatik, curriculumak dioenez, Haur Hezkuntzako sei ikasturteen ondotik:

Haurrak, jarduera motor kontzientearen bidez, bere nortasun propioa eraikitzen du, bere gorputza ezagutzen du eta hura adierazpen-bitarteko moduan erabiltzen, gorputz-egitura osatzen du, denbora-errealitatea bizi du, eta kanpo-munduaz eta gainerako pertsonekin harmonian konpartitu behar duen espazioaz jabetzen da. Kanpo-munduan «den bezala» adierazteko aukera ematen dio gorputz-adierazpenak haurrari, eta horretarako, keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz-jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabiltzen ditu. Baliabide horien bidez, ideiak eta emozioak adierazten ditu, eta egokitasunez interpretatzen eta balioesten ditu gainerako pertsonen adierazpenak.(237/2015 Dekretua, 26. or.)

FAQ

1.

Dokumentua idatzita dagoen hizkuntza gure lana idazteko erabiltzen ari garena ez beste bat denean, zer hizkuntzatan sartu behar dugu hitzez hitzeko aipua?

Kasu horretan, jatorrizko hizkuntza erabili behar duzu, eta, aukeran, itzulpen zehatz bat gehitu kortxeteak erabiliz.

Adib.:

“To be or not to be, that is the question” [Izan ala ez izan, hori da galdera]

Nolanahi ere, gogoratu ez dela komenigarria gehiegi erabiltzea hitzez hitzeko aipua.

2.

Zer egin behar dut aipatu nahi ditudan orrialdeak ondoz ondokoak ez direnean?

Koma erabili behar duzu marratxoaren ordez.

Adib.:

(34., 37. or.)

⁴ APAk hazbete erdiko koska bat gomendatzen du, hau da, 1,27 cm.

3.

Sar dezaket hitzez hitzeko aipu bat zertxobait aldatuz haren testua?

EZ. Hitzez hitzeko aipu bat sartzen duzunean, ezin duzu ezer aldatu. Zerbait aldatu nahi baduzu, hobe duzu hitzez hitzekoa ez den aipu bat egitea.

OHIKO AKATSAK

1.

Hitzez hitzeko aipuak gehiegi erabiltzea.

Oro har, komeni da ez erabiltzea gehiegi hitzez hitzeko aipuak, zaildu egiten dutelako erraz irakurriko den testu bat lortzeko helburua. Lan batean erabiliko ditugun aipu gehienak ez dira izango hitzez hitzekoak, nahiz eta, lan motaren eta jakintza arloaren arabera, hitzez hitzeko aipu gehiago edo gutxiago erabil daitezkeen.

2.

Ez egokitzea ondo hitzez hitzeko testua gure idatzira.

Gogoratu egokitu egin behar dugula idazketa, ondo txertatzeko hitzez hitzeko aipua gure lanean. Hau da, aipua txertatu behar da testuan era logiko batean eta zuzen gramatikoki.

1. adibidea:

Ez da erraza ados jartzea psikomotrizitate terminoa defintzeko. "El concepto de Psicomotricidad ha sido utilizado con diversos significados en diferentes situaciones y contextos" (Maldonado, 2008, 8. or.).

vs.

Ez da erraza ados jartzea psikomotrizitate terminoa defintzeko, zeren eta "El concepto de Psicomotricidad ha sido utilizado con diversos significados en diferentes situaciones y contextos" (Maldonado, 2008, 8. or.).

2. adibidea:

Idaztea izan daiteke literaturaren inguruko begirada positiboaren eta erromantikoaren adostasun eta desadostasun puntua.

He aquí la gran diferencia entre la lectura y la escritura. Leer es una vocación, un oficio en el cual, con la práctica, uno está destinado a ser cada vez más experto. Como escritor, lo que uno acumula son ante todo incertidumbres y ansiedades. (Sontag, 2000, 7. or.)

vs.

Idaztea izan daiteke literaturaren inguruko begirada positiboaren eta erromantikoaren adostasun eta desadostasun puntua, eta balio dezake Sontag-ek (2000) egiten dituen bereizketak bezalakoak egiteko:

He aquí la gran diferencia entre la lectura y la escritura. Leer es una vocación, un oficio en el cual, con la práctica, uno está destinado a ser cada vez más experto. Como escritor, lo que uno acumula son ante todo incertidumbres y ansiedades. (7. or.)

3.

Orrialde zenbakia sartzea aipuaren aurretik, egilearekin batera.

Aipuaren amaieran sartu behar da.

Adib.:

Nahiz eta sortzaileak liburu honetan ez duen praktikaren definizio zehatz bat ematen, Garcíaek (1995, 4. or.) honako hau dio:

La práctica psicomotriz es un sistema de escucha y acompañamien-

to que debe ser entendido como un proceso de ayuda que acompaña al niño/a en su propio itinerario madurativo, que va desde la expresividad motriz y el movimiento hasta el logro de la capacidad de descentración. En ese proceso se busca el desarrollo global del niño, favoreciendo la evolución de las áreas fundamentales tales como la emocional-afectiva, la corporal-motriz y la cognitiva y de simbolización. El niño irá madurando dejando atrás la globalidad, la dependencia y la impulsividad, para alcanzar la diferenciación, la autonomía y la reflexión.

4.

Jatorrizko ideia aldatzea nork bere ideiak justifikatzeko.

Ez baditugu hitz egokiak erabiltzen, aldatu egin dezakegu adierazi nahi dugun ideiareen esanahia. Kontuz ibili behar dugu zer hitz erabiltzen dugun.

5.

Hitzez hitzeko aipu bat sartzea hitzez hitzekoa ez balitz bezala.

Ez badugu komatxorik jartzen, hitzez hitzeko aipu bat hitzez hitzekoa ez den aipu bihurtzen dugu. Plagioa da hori.

GOGORATU

Hitzez hitzeko aipuak erabiltzean, saia zaitetz aipuak esaten ari zarenarekin ondo lotzen, zure lanaren irakurketa oztopa ez dezaten. Dena dela, ez erabili gehiegi horrelako aipurik. Saia zaitetz ideia ondo ulertzen, laburtu ezazu eta txertatu zure lanean, aipatuz beti kontsultatutako iturria(k) edo dokumentua(k).

Hitzez hitzekoak ez diren aipuetan, mantendu egin behar duzu irakurri duzun ideiareen esanahia.

Jarri komatxoak hitzez hitzeko aipuetan; bestela, irakurleek pentsatuko dute hitzez hitzekoak ez direla eta plagioa egingo duzu.

Hitzez hitzeko aipuetan, adierazi behar duzu, dokumentuaren egilea eta argitalpen urteaz gainera, zer orrialde-tatik atera duzun ideia (orrialde bat edo gehiago).

Hitzez hitzekoak ez diren aipuetan, aipatutako ideia zer orrialde zenbakitatik atera duzun jar dezakezu.



2.3. Iturri primarioen eta sekundarioen aipuak

///// Zergatik?

Iturri primarioak informazioa zuzenean ematen diguten iturriak dira; aldiz, sekundarioek erreferentzia egiten diote beste dokumentu (primarioa) baten edukiari. Iturri sekundarioak aipatu behar ditugu soil-soilik ezin dugunean iturri primarioa eskuratu. Hoberena izango litzateke dokumentu primarioa lortzea, irakurtzea eta modu konbentzionalean aipatzea (modu primarioa). Hori posible ez denean (jatorrizko lana –primarioa– deskatalogatuta dagoelako, eskura ez dagoelako edo, eskura egonik, ulertzen ez dugun hizkuntza batean dagoelako), iturri sekundarioa aipatu behar dugu. Edonola ere, komeni da ez erabiltzea gehiegi aipu sekundarioak, zehaztasuna kentzen diotelako gure lanari.

///// Nola?

Eskura ez dugun eta beste lan batean aipatua irakurri dugun dokumentu edo obra bat aipatzeko, "-(e)k aipatua", "hemen aipatua", "*apud*"⁵... esapideak erabil ditzakegu. Horietako edozein erabil dezakegu, baina behin bat aukeratuta lan osoan esapide berbera erabiliko dugu beti. Aipuaren formulazioan, bi dokumentuen egileen lehen abizena eta argitalpen data sartu behar ditugu. Honela:

⁵ *Apud* latinezko preposizioa aipu bibliografikoetan erabiltzen da "honen obran" esanahiaz. Latinezko hitz bat denez, letra etzanean idazten da.

Aipu narratiboak

Adib.:

Bolañosek (1986, Viciano *et al.*-ek aipatua, 2017) dioenez, beste arlo batzuetako ezagutzak eskuratzeko bitarteko gisa erabilia, psikomotrizitateak esanahi handia du umearen bizitzan eta irakaslearen zereginen.

Aipu parentetikoak

Adib.:

Beste arlo batzuetako ezagutzak eskuratzeko bitarteko gisa erabilia, psikomotrizitateak esanahi handia du umearen bizitzan eta irakaslearen zereginen (Bolaños, 1986, Viciano *et al.*-ek aipatua, 2017).

Bi kasuetan, Viciano *et al.*-en dokumentua irakurri dugu, Bolañosena aipatzen duena, baina ez dugu irakurri azken hori (modu sekundarioan aipatzen ari gara). Ondorioz, Viciano *et al.*-en dokumentua sartu behar dugu erreferentzien amaierako zerrendan, ez Bolañosena.

FAQ

1.

Dokumentu bat aipatu nahi dugu baina ez dakigu haren argitalpen data. Nola aipatu behar dugu?

Ez dugu dokumentu primarioaren data jarriko, ezin dugulako dokumentua lortu. Dokumentu sekundarioaren data bakarrik jarriko dugu.

Adib.:

Klauss (McLeod *et al.*-ek aipatua, 2014)

McLeod *et al.*-en (2014) lanak agertu behar du gure lanaren erreferentzien zerrendan. Klauss-en lana (hau da, zeharka aipatzen dena) EZ da sartu behar erreferentzien amaierako zerrendan.

2.

Lan batean aipu sekundario bat irakurri eta gurean aipatu nahi badugu, zer egin behar dugu?

Iturri primarioa bilatu behar dugu edo, bestela, sekundarioa. Inoiz ez da aipatu behar dokumentu bat modu 'terziario' batean.

Adib.:

(EZ) López (2004, Larrazabalek aipatua, 2010, McLeodek aipatua, 2014)

OHIKO AKATSAK

1.

Modu primarioan aipatzea irakurri ez dugun dokumentu baten ideia bat.

Adibidez, Bolañosen (1986) ideia bat irakurtzea Vicianaren (2017) artikulu batean eta Bolaños aipatzea guk irakurri izan bagenu bezala. Gainera, Bolañosen dokumentua sartzea lanaren erreferentzien amaierako zerrendan.

2.

Dokumentu bat hartzea eta haren iturri sekundarioak gehiegi erabiltzea.

Gure lana oinarritu behar dugu iturri primarioen irakurketa pertsonalean. Bibliografiaren bilaketa lanak pertsonala izan behar du, eta ezin dugu aprobetxatu beste egile batek eginiko bilaketa lana, 'kopiatzeko' eta gure lana balitz bezala erakusteko.



GOGORATU

Saia zaitez beti dokumentuak eskuratzen zure lanean modu primarioan aipatzeko. UPV/EHuren katalogoa oso zabala da eta dokumentu asko ditu. Kontsultatu. Gainera, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko bibliotekek liburu eta dokumentu kopuru handi bat dute. Bestetik, aldizkari askok irekian eskaintzen dituzte beren edukiak beren web orrietan.

Aipu sekundarioek zorrozatasuna eta kalitatea kentzen dizkiote zure lanari. Hobe gehiegi erabiltzen ez badituzu.

Joka ezazu zintzo eta ez aipatu modu primarioan irakurri ez duzun dokumenturik.

2.4. Laburpen taula

Egoera	Aipu parentetikoak	Aipu narratiboak
Egile bat	(Aucouturier, 2004)	Aucouturier (2004)
Bi egile	(Shrout eta Fleish, 1979)	Shrout eta Fleish (1979)
Hiru edo gehiago	(Liberati <i>et al.</i> , 2009)	Liberati <i>et al.</i> (2009)
Egile eta urte bereberko lanak	1. dokumentua: (Etxepare eta Uribe-Etxebarria, 2010a) 2. dokumentua: (Etxepare eta Uribe-Etxebarria, 2010b)	Documento 1: Etxepare eta Uribe-Etxebarria (2010a) Documento 2: Etxepare eta Uribe-Etxebarria (2010b)
Erakundeak, elkarteak laburdurarekin	Lehenengo aldiz: (Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea [UPV/EHU], 2010). Hurrengoak: (UPV/EHU, 2010)	Lehenengo aldiz: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU, 2010). Hurrengoak:UPV/EHU (2010)
Erakundeak, elkarteak laburdurarik gabe	(Osakidetza, 2008)	Osakidetza (2008)
40 hitz baino gutxiagoko hitzez hitzeak	Ez da erraza ados jartzea psikomotrizitate terminoa definitzeko, zeren eta "El concepto de Psicomotricidad ha sido utilizado con diversos significados en diferentes situaciones y contextos" (Maldonado, 2008, 8. or.).	Ez da erraza ados jartzea psikomotrizitate terminoa definitzeko, zeren eta, Maldonadok (2008, 8. or.) planteatu bezala, "El concepto de Psicomotricidad ha sido utilizado con diversos significados en diferentes situaciones y contextos".
40 hitzeko edo gehiagoko hitzez hitzeak	Horregatik, curriculumak dioenez, Haur Hezkuntzako sei ikasturteen ondotik: Haurrak, jardueramotor kontzientearen bidez, bere nortasun propioa eraikitzen du, bere gorputza ezagutzen du eta hura adierazpen-bitarteko moduan erabiltzen, gorputz-egitura osatzen du, denbora-errealitatea bizi du, eta kanpo-munduaz eta gainerako pertsonekin harmonian konpartitu behar duen espazioaz jabetzen da. Kanpo-munduan «den bezala» adierazteko aukera ematen dio gorputz-adierazpenak haurrari, eta horretarako, keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz-jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabiltzen ditu. Baliabide horien bidez, ideiak eta emozioak adierazten ditu, eta egokitasunez interpretatzen eta balioesten ditu gainerako pertsonen adierazpenak. (237/2015 Dekretua, 26. or.)	Horregatik, Dekretu bidez (237/2015 Dekretua), curriculumak dioenez, Haur Hezkuntzako sei ikasturteen ondotik: Haurrak, jardueramotor kontzientearen bidez, bere nortasun propioa eraikitzen du, bere gorputza ezagutzen du eta hura adierazpen-bitarteko moduan erabiltzen, gorputz-egitura osatzen du, denbora-errealitatea bizi du, eta kanpo-munduaz eta gainerako pertsonekin harmonian konpartitu behar duen espazioaz jabetzen da. Kanpo-munduan «den bezala» adierazteko aukera ematen dio gorputz-adierazpenak haurrari, eta horretarako, keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz-jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabiltzen ditu. Baliabide horien bidez, ideiak eta emozioak adierazten ditu, eta egokitasunez interpretatzen eta balioesten ditu gainerako pertsonen adierazpenak. (26. or.)
Hitzez hitzeak ez diren aipuak	Psikomotrizista enpatikoa dahaurraren gorputz tonuaren behaketa sakona –alde batetik– egiten duena (begirada, keinuak, jarrera, ahotsa, etab.) (Camps eta García, 2004).	Camps eta García (2004) diote psikomotrizista enpatikoa dela haurraren gorputz tonuaren behaketa sakona –alde batetik– egiten duena (begirada, keinuak, jarrera, ahotsa, etab.)
Primarioa	Hori beharrezkoa da aretoaren esparrua ulertzeko eta taldearen sinbolizazioa askatzeko (Chokler, 1999).	Chokler-en (1999) arabera, hori beharrezkoa da aretoaren esparrua ulertzeko eta taldearen sinbolizazioa askatzeko.
Sekundarioa	Horretarako, oso garrantzitsua da hezitzaileak bi funtzio betetzea: alde batetik, haurrari harrera egin eta hura segurtatzea; bestetik, muga argiak ezartzeko eta aretoan legearen eta autoritatearen sinbolo izatea (Aucouturier, 1995, Campsek aipatua, 2008).	Horretarako, Aucouturier-ek (1995, Campsek aipatua, 2008) dio oso garrantzitsua dela hezitzaileak bi funtzio betetzea: alde batetik, haurrari harrera egin eta hura segurtatzea; bestetik, muga argiak ezartzeko eta aretoan legearen eta autoritatearen sinbolo izatea.

3

Amaierako erreferentziak edo bibliografia osatzea

3.1. Amaierako erreferentzien atalaren ezaugarriak

////// Zergatik?

Testuaren gorputzean iturriei buruzko aipamenak laburrak direnez (aurreko blokean azaldu den bezala), ezinbestekoa da lanaren bukaeran erreferentzien amaierako atal bat sartzea, aipatutako dokumentuen datu guztiak jasotzeko. Horrela, irakurleak datu guztiak izango ditu, hala nahi izanez gero dokumentua aurkitu eta irakurtzeko.

////// Nola?

Hauek dira erreferentziak idaztean kontuan hartu behar diren elementu nagusiak:

1. Erreferentzien amaierako zerrendan (bibliografia) soilik sartu behar dituzu irakurri eta lanean aipatu dituzun lanak. Erreferentzien zerrendan ez dituzu sartu behar irakurri bai baina aipatu EZ dituzun lanak. Bestetik, lanean aipatutako obra guztiak amaierako bibliografian sartu behar dira nahitaez.
2. Erreferentzien zerrendan sartutako itemak (zerrendako sarrerak) alfabetikoki ordenatu behar dira, lehenengo egilearen abizenaren arabera.
3. Erreferentzien amaierako zerrendako dokumentu bakoitza bere ezaugarrien arabera aipatu behar da, aintzat harturik hurrengo ataletan azaltzen diren arauak.

GOGORATU

Lanean zeharkako aipuak sartu dituzunean, irakurri eta kontsultatu duzun iturria (primarioa) bakarrik sartu behar duzu erreferentzien amaierako zerrendan, EZ zeharka aipatu duzun iturria (sekundarioa) (informazio gehiago 2.3 puntuan).

Garrantzitsua da beti aipatzea erabili duzun testuaren egilea. Adibidez, editatutako liburu baten kapitulu bat erabiltzen baduzu, informazioa nori dagokion adierazi behar duzu: hots, kapituluaren egileari, ez liburuaren editoreari.

Dokumentu bat erreferentzien amaierako zerrendan behar bezala aipatzeko, zer motatako dokumentua den jakin behar duzu, dokumentu bakoitza (liburua, artikulua, kapitulua...) modu batean aipatzen delako (ondoren azalduko den moduan). Gogoan izan dokumentuen ezaugarriei erreparatu behar diezula dokumentu motak bereizteko. Adibidez, liburuek ISBN kodea dute, aldizkariak ISSN, etab. (ikus 1.4 atala).



3.2. Erreferentzia guztien elementu komunak

////// Zergatik?

Aipu bakoitza osatzen da elementu jakin batzuk elkartuta: egilea, urtea, etab. Liburu, artikulua... bat nola aipatu jakin aurretik, garrantzitsua da jakitea nola aipatzen den hura osatzen duen elementu bakoitza bere aldetik.

////// Nola?

Hona hemen nola aipatzen den aipu baten elementu bakoitza:

1. Egilea: Nor da lanaren arduraduna?
2. Data: Noiz argitaratu zen lana?

3. Izenburua: Zer izen du lanak?

4. Iturria: Non argitaratu da lana (aldizkaria, liburua, web orria...)?

///// 1. Egilea

Erreferentzien zerrendako sarrera hasten da egilearen abizenarekin (edo abizenekin) eta izenaren inisialarekin, komaz berezita.

» Egile bakar bat:

Abizena(k), Iniziala.

Adib.:

Cummins, J.

» Egile bat baino gehiago:

Bi egile edo gehiago daudenean, komaz berezi behar dituzu eta 'eta' juntagailua sartu azkenaren aurretik.⁶

Abizena(k), Iniziala., Abizena(k), Iniziala. eta Abizena(k), Iniziala.

Adib.:

Wuytack, J. eta Boal-Palheiros, G.

Sánchez, A., Rueda, O. eta Morvillo, S.

Egileen generoa ikusarazteko eta, ondorioz, emakumeek ikerketan eginiko lana nabarmentzeko, izen osoa ere idatz daiteke, inisialaren orde. Adibidez:

Colomer, Teresa / Colomer, T.

López Valero, Amando / López Valero, A.

Dena dela, **kontuz!** Izen osoa idazten baduzu, koherentziagatik, erreferentzia guztietan egin behar duzu (egileak emakumezkoak ala gizonezkoak izan). Hau da, behin irizpide bat hartuta, kasu guztietan aplikatu behar da.

FAQ

1.

Egileak izen bat baino gehiago dituenean, inisialak elkarren ondoan idatzi behar dira ala tarte batez bereziak?

Kasu horretan, tarte batez bereziak idazten dira.

Adib.:

Sánchez, M. C.

⁶ APA arauak zorrotz aplikatuta, gomendatzen da koma jartzea 'eta' juntagailuaren aurretik. Abizena(k), Iniziala., eta Abizena(k), Iniziala.

Adib.: Wuytack, J., eta Boal-Palheiros, G.

2.

Egileak abizen bat baino gehiago dituenean, denak aipatu behar dira ala lehenengoa bakarrik?

Egileak bere lana sinatzen duen modua eta hurrenkera errespetatu behar dituzu. Bi abizen erabiltzen baditu, biak idatzi behar dituzu.

3.

Zer hurrenkeratan aipatu behar dira dokumentu baten egileak?

Dokumentua sinatu duten hurrenkeran.

4.

Zer egin behar da egiletza korporatiboen kasuan?

Kasu horretan, korporazioaren izena da egilea, puntuz amaitua.

Adib.:

Eusko Jaurlaritz.

5.

Zer egin behar da informaziorik ez dagoenean egileari buruz?

Dokumentua sinatuta ez dagoenean edo haren egilea nor den ez dakigunean, obraren izenburua jarri behar dugu egilearen orde, argitalpen dataren aurretik.

Dokumentua anonimo gisa identifikatuta dagoenean, "Anonimoa" idatzi behar dugu egilearen izenaren orde.

Ikus 2.1 atala, FAQ. /// Gainera, ikus ere 1. eranskina.

» Rol espezifikoa zehaztea: editorea, etab.

Litekeena da dokumentu edo iturri batek egilerik ez edukitzea, editorea, koordinatzailea... baizik.

Ohikoena da hainbat egileren lanak biltzen dituzten liburuak aurkitzea, eta editore, koordinatzaile, biltzaile, zuzendari... batek edo gehiagok sinatuta egotea. Kasu horretan, laburduren bidez aipatzen dira: Ed., Koord., Biltz., Zuz., etab.

///// 2. Data

Argitalpen urtea parentesien artean idazten da, puntua erantsita.

Oso garrantzitsua da argitalpen urtea behar bezala agertzea.

Adib.:

(urtea). > (2020).

» Zer gertatzen da lan batek datarik ez duenean?

Kasu horretan, d.g. laburdura (datarik gabe) idatzi behar duzu urtearen orde.

Adib.:

(urtea). > (d.g.).

Egile beraren eta data bereko bi obra edo gehiago sartzean, bereizi egin behar dituzu, letra minuskula bat gehituta ordena alfabetikoan argitalpen urteari, testuaren gorputzean sartutako aipuetan egin bezala (ikus 2.1. atala, FAQ).

Adib.:

Cassany, D. (1999a). *Construir la escritura*. Paidós.

Cassany, D. (1999b). Los enfoques comunicativos: elogio y crítica. *Lingüística y literatura*, 36-37, 11-33.

////// 3. Izenburua

Erreferentzietan sartu beharreko dokumentua modu batean edo bestean aipatzen da, dokumentu motaren arabera.

» Dokumentua artikulu bat edo liburu kapitulu bat denean (hots, obra handiago baten barruan dagoenean):

Idatzi izenburua letra biribiletan eta komatxorik gabe; hau da, EZ idatzi komatxoaren artean, ezta letra etzanetan ere.

Idatzi maiuskulaz izenburuaren lehenengo letra.

Idatzi izenburua osorik beti. Hots, azpi izenbururik badago, idatzi.

Jarri beti puntua amaieran.

Adib.:

Izenburua. > Estrategias para mejorar la comprensión lectora: impacto de un programa de intervención en español.

» Dokumentua liburu bat denean:

Aurreko atalean esandako guztiak balio du, desberdintasun bakar batekin: liburuaren izena letra etzanean idatzi behar da.

Gogoratu obra handiago baten barruan dauden dokumentuak (artikulua edo liburu kapitulua) letra biribilez idazten direla; obra handiagoak (liburua edo aldizkaria), letra etzanean.

Adib.:

Liburuaren izenburua. > Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan.

FAQ

1.

Liburuaren azaleko izenburuaren letrak maiuskulaz idatzita daudenean, nola idatzi behar ditut erreferentzien zerrendan?

Erreferentzien zerrendan, soilik izenburuaren lehenengo letra idatzi behar duzu maiuskulaz (eta hizkuntzaren arau ortografikoaren arabera maiuskulaz idatzi behar diren hitzak), nahiz eta liburuan letra guztiak maiuskulaz egon.

////// 4. Iturria

Gure lanean aipatzen dugun lana dokumentu batetik hartu ohi dugu. Dokumentu horri iturria esaten diogu. Nolakoa den aipatu nahi dugun dokumentua (obra independentea –monografia edo liburua, tesia...– edo obra handiago baten zati –aldizkari artikulua, editatutako liburu kapitulua...–), modu batean edo bestean sartuko dugu iturria erreferentzietan.

» Dokumentu independenteak

Monografia edo liburu oso bat aipatzean, argitaletxea aipatu behar duzu, gehi DOI (*Digital Object Identifier*, 'Objektu Digital Identifikatzailea') edo URL lokalizatzailea, puntuaz bereziak, dokumentuak halakorik edukiz gero (ikus 3.3 atala).⁷

» Obra handiago baten barruan dauden dokumentuak

Aldizkari artikulu edo liburu kapitulu baten iturria dira, hurrenez hurren, dokumentu horiek argitaratu diren aldizkaria edo liburua. Kasu bakoitzean, iturria aipatu behar duzu, dokumentua eskuratzeko modua ematen duen informazio guztia aipatuta (orrialdeak, DOI edo URL, halakorik izanez gero ...) (ikus 3.4 atala aldizkari artikuluen kasuan eta 3.5 atala liburu kapituluaren kasuan).

3.3. Nola erreferentziatu liburuak edo monografiak

///// Zergatik?

Liburuak edo monografiak dira gure lanetan erabil ditzakegun iturri akademiko garrantzitsuenetakoak. Egile bat edo gehiago izan ditzakete. Kategoria honen barruan sartzen dira ere hiztegiak, entziklopediak, etab.

///// Nola?

Honako hauek dira liburu bat behar bezala aipatzeko datuak:

1. Egilea(k).
2. Argitalpen urtea.
3. Izenburua (zehazki eta osorik idatzia).
4. Iturria:
 - 4.1. Argitaletxearen izena
 - 4.2. DOI edo URL (halakorik izanez gero).

Liburua aipatzean, honela ordenatzen dira datuak:

///// 1. Liburuak egile bakarra duenean

Abizena, N. (urtea). *Liburuaren izenburua letra etzanean*. Argitaletxea. (DOI edo URL)

Adib.:

Mercer, N. (2000). *Words and minds: how we use language to think together*. Routledge.

///// 2. Liburuak egile bat baino gehiago dituenean

Egitura bera mantentzen da, baina egileen datu guztiak sartuta.

Abizena, N., Abizena, N. eta Abizena, N. (urtea). *Liburuaren izenburua letra etzanean*. Argitaletxea. (DOI edo URL)

Adib.:

Brennan, B. eta Sánchez, D. (2013). *De tú a tú*. Difusión.

Lehenengo hiru elementuak (egilea, urtea eta izenburua) aipatzeko modua 3.2 atalean azaldu dugu. Argitaletxeari dagokionez, kontuan hartu behar da:

⁷ Monografiez edo liburuez gainera, badira independenteak diren beste dokumentu kategoria batzuk; hala nola weborriak edo hainbat motatako baliabide elektronikoak edo ikus-entzunezkoak (ikus 3.6 atala). Dokumentu mota edozein dela ere, kontuan hartu behar da beti zer aipatu nahi den (zati bat edo osoa), eta behar bezala aipatu behar da.

- › Idatz ezazu argitaletxearen izena letra biribilean.
- › Jarri puntua argitaletxearen izenaren ondoren.

////// 3. Hainbat egilek idatzitako kapituluak dituen editatutako liburu bat denean

Liburu edo monografia bat izan daiteke hainbat egilek idatzitako kapitulu bilduma bat, editore, koordinatzaile, biltzaile... bat edo gehiago dituen arduradun gisa. Kasu horretan, garrantzitsua da kontuan hartzea:

Editatutako liburu bat bere osotasunean aipatu nahi duzunean (ez haren kapitulu zehatz bat), erreferentzien zerrendako sarrera hasiko da liburuaren arduradunaren edo arduradunen abizenaz eta izenaren inisialaz (editoreak, biltzaileak, koordinatzaileak, etab.).

Liburuaren kapitulu bat aipatu nahi duzunean, liburu kapitulu gisa egin beharko duzu (ikus 3.5 atala).

›› Honako hauek dira editatutako liburu bat (editoreekin) behar bezala erreferentziatzeko datuak:

1. Liburuaren arduraduna(k).
2. Liburuaren arduradunaren eginkizuna.
3. Argitalpen urtea.
4. Izenburua (zehazki eta osorik idatzia).
5. Iturria:
 - 5.1. Argitaletxearen izena.
 - 5.2. DOI edo URL.

›› Editatutako liburua erreferentziaztean, honela ordenatzen dira datuak:

Abizena, N. (Ed./Koord./...). (urtea). *Liburuaren izenburua letra etzanean*. Argitaletxea. (DOI edo URL)

Adib.:

Pérez-Fuentes, M. C. (Ed.). (2019). *Innovación docente e investigación en Educación y Ciencias Sociales*. Dykinson.

Arduradun bat baino gehiago dagoenean, denen abizenak eta inisialak idatzi behar dituzu:

Abizena, N., Abizena, N. eta Abizena, N. (Ed./Koord./...). (urtea). *Liburuaren izenburua letra etzanean*. Argitaletxea. (DOI edo URL)

Adib.:

Cal Varela, M., Núñez Pertejo, P. eta Palacios Martínez, I. (Eds.). (2005). *Nuevas tecnologías en lingüística, traducción y enseñanza de lenguas*. Universidad de Santiago de Compostela.



Editatutako liburu baten kapitulu bat bakarrik aipatzean, liburu kapitulu gisa egingo duzu beti, kapituluaren egilea eta liburuaren arduraduna bereiziz (ikus 3.5 atala).

3.4. Nola erreferentziatu aldizkari zientifikoetako artikulua

///// Zergatik

Aldizkari zientifikoak dira informazio zientifikoa eskuratzeko tresna nagusia. Aldian behin argitaratzen direnez (urtean behin, sei hilean behin...), alor bati buruzko informazio eguneratua eskaintzen dute.

Informazioaren kalitatea bermatzen dute. Hau da, artikulua bakoitzak kalitate iragazki batzuetatik igaro behar du, zorrotasun handiagokoak edo txikiagokoak, aldizkariaren arabera.

Beraz, ezinbesteko tresna dira edozein lan akademiko egiteko.

///// Nola?

Aldizkari zientifiko bateko artikulua bat erreferentzien zerrendan sartzean, elementu hauek hartu behar ditugu kontuan:

1. Egilea.
2. Argitalpen urtea.
3. Aipatzen den dokumentuaren izenburua.
4. Iturria:
 - 4.1. Aldizkariaren izena.
 - 4.2. Bolumena (eta zenbakia).
 - 4.3. Orrialdeak.
 - 4.4. DOI edo URL (halakorik izanez gero).

1., 2. eta 3. puntuak erreferentziatzeko moduari dagokionez, ikus 3.2 atala.

///// Iturria erreferentziaztean, garrantzitsua da jarraibide hauek kontuan hartzea:

>> Aldizkariaren izena

- > Idatzi aldizkariaren izena/izenburua letra etzanean.
- > Idatzi izenburuaren lehenengo letra maiuskulaz.
- > Jarri koma aldizkariaren izenaren eta alearen zenbakiaren artean.

>> Bolumena (eta zenbakia)

- > Iturria aldizkari bat denean, garrantzitsua da zehaztea haren bolumena (eta zenbakia).
- > Idatzi aldizkariaren bolumena letra etzanean.
- > Idatzi aldizkariaren zenbakia (halakorik izanez gero) parentesien artean, bolumenaren ondoren (tarterik utzi gabe). Kontuz: ez idatzi zenbakia (parentesien artean) letra etzanean.

Batzuetan, bolumena eta zenbakia ez dira behar bezala erabiltzen. Normalean bolumen edo liburuki batek aldizkari baten ale edo zenbakien urte osoko balioa hartuko du. Adibidez, urtean lau aldiz argitaratzen den aldizkari batek lau ale edo zenbaki izango ditu urteko liburukian.



» Orrialdeak

- › Idatzi orrialdeak **marratxo** batez bereziak.
- › Kontuz: ez idatzi **letra** etzanean.
- › Jarri **puntua** orrialdeen zenbakien ondoren.

///// Aldizkari zientifiko bateko artikulua bat erreferentziaztean, honela ordenatzen dira datuak:

Abizena(k), Iniziala. (urtea). Artikuluaren izenburua. *Aldizkariaren izena, bolumena*(zenbakia), orrialdeak.

Adib.:

Ruiz Bikandi, U. (2007). La autoobservación en clase de lengua como mecanismo colectivo de formación: el discurso protector. *Cultura y Educación*, 19(2), 165-181.

3.5. Nola erreferentziatu liburu kapituluak

///// Zergatik?

Batzuetan, aipatu edo parafraseatu dugun lana editore batek baino gehiagok editatutako liburu baten kapitulu bati dagokio, eta liburuak hainbat egilek gai edo alor beraren inguruan idatzitako kapituluak biltzen ditu. Kasu horretan, garrantzitsua da ziurtatzea kontsultatu den kapitulua aipatzen ari garela eta liburu osoa aipatzearen akatsa ez egitea.

Adibidez, aipatu nahi baduzu Ana Isabel Codesido Garciak idatzitako “Tecnologías de la lengua y traducción: recursos y herramientas” izeneko kapituluko ideia bat, Cal Varela, Nuñez Pertejo eta Palacios Martínezek editatutako eta *Nuevas tecnologías en lingüística, traducción y enseñanza de lenguas* izeneko liburukoa, kapitulua aipatu behar duzu, ez liburu osoa.

Akten bolumenetan argitaratutako kongresuetako komunikazioak liburu kapituluak bezala aipatzen dira.

///// Nola?

Liburu kapitulu bat erreferentzien zerrendan sartzean, elementu hauek hartu behar ditugu kontuan:

1. Egilea.
2. Argitalpen urtea.
3. Aipatzen den dokumentuaren izenburua.
4. Obraren arduraduna eta eginkizun espezifikoak zehaztea (editorea, etab.).
5. Iturria:
 - 5.1. Liburuaren izenburua.
 - 5.2. Orrialdeak.
 - 5.3. Argitaletxea.
 - 5.4. DOI edo URL (halakorik izanez gero).

Kasu honetan, laburduraren bidez eta parentesien artean zehaztu behar duzu obraren arduradunaren eginkizuna. Ondoren, **koma** jarriko duzu beti.

Orrialdeei dagokienez, ‘or.’ laburdura idatziko duzu, parentesiak erabilia. Ondoren, **puntua**.

///// Liburu kapituluak erreferentziaztean, honela ordenatzen dira datuak:

Abizena(k), Iniziala. (urtea). Kapituluaren izenburua. In/ Hemen: Iniziala. Abizena(k) (Ed.), *Editatutako liburuaren izenburua* (orrialdeak). Argitaletxea. (DOI edo URL)

Adib.:

Tomlinson, B. (2010). Principles and procedures of materials development. Hemen: N. Harwood (Ed.), *Materials in ELT: Theory and Practice* (81-108. orr.). Cambridge University Press.

GOGORATU

Liburuaren arduraduna aipatzean, alderantzikatu egiten da inicialaren eta abizenaren (abizenen) hurrenkera. Erreparatu adi aurreko adibideari: lehenbizi izenaren iniciala jartzen da, eta ondoren abizen osoa.

Kontuz! Liburuak arduradun bat baino gehiago dituenean, izenak komen bidez bereizten dira, eta 'eta' juntagailua jartzen da azkenaren aurretik.⁸ Liburuaren arduradunaren eginkizunaren ondoren, koma jartzen da.

Kapituluaren orrialdeak parentesien artean idazten dira, tarte batez bereiziak izenburutik (komarik gabe), gehi puntua. 'or.' laburdura erabiltzen da.



3.6. Nola erreferentziatu master amaierako lanak eta gradu amaierako lanak

///// Zergatik?

Batzuetan, hainbat motatako lan akademikoetan aurkitu ditugun ideiak edo argudioak aipatzen ditugu gure lanetan: doktorego tesiak, master amaierako lanak, gradu amaierako lanak, etab. Lan horiek guztiek neurri handiagoan edo txikiagoan ezagutza sortzen laguntzen badute ere, batzuetan formalki argitaratu gabe daude.

Era horretako lanak aipatzean, kontuan izan behar dugu formalki argitaratu diren ala ez, nola argitaratu diren (paperean, formatu elektronikoan), era batean edo bestean sartuko ditugulako erreferentzien zerrendan horren arabera. Oro har, argitaratutako lan akademikoak eskuratzen ditugu datu base espezifiketatik (Teseo, ProQuest Dissertations and Theses), unibertsitate edo erakunde akademikoen artxibo eta datu baseetatik (ADDI, hal.archives-ouvertes.fr) eta abarretik.

///// Nola?

Tesiak, master eta gradu amaierako lanak... liburuen edo monografiaren antzera aipatzen dira, hauek bezala lan autonomoak direlako eta ez daudelako argitalpen handiago baten barruan (artikuluak edo liburu kapituluak ez bezala).

Hortaz, honako hauek dira lan akademikoak erreferentzien zerrendan sartzean aintzat hartu behar diren elementuak:

1. Egilea(k).
2. Argitalpen urtea.
3. Izenburua (zehazki eta osorik idatzia).
4. Lan mota.
5. Iturria.

⁸ Honetan, egileen kasuan ez bezala (ikus 4. orri oina), APA arauak diote ez dela komarik jarri behar 'eta' juntagailuaren artean.

///// Argitaratu EZ diren tesiak eta lan akademikoak erreferentziaztean, honela ordenatzen dira datuak:

Abizena(k), Iniziala. (urtea). *Lanaren izenburua* [Argitaratu gabeko lan mota]. Unibertsitatea.

Adib.:

Cano García, F. (1990). *Estrategias y estilos de aprendizaje en la Universidad: un análisis multivariado* [Argitaratu gabeko doktorego tesia]. Universidad de Granada.



Lan akademikoen kasuan, izenburua letra etzanean idazten da. Gainera, izenburuaren ondoren, kortexteen artean idazten da zer motatakoa den argitaratu gabeko lan akademikoa. Unibertsitatearen edo erakundearen izena iturri gisa agertuko da. Lan akademikoak modu batean edo bestean aipatzen dira, kontuan izanik argitaratu diren ala ez.

///// Online argitaratu diren tesiak eta lan akademikoak erreferentziaztean, honela ordenatzen dira datuak:

Abizena(k), Iniziala. (urtea). *Lanaren izenburua* [Lan mota. Unibertsitatearen izena].
Datu basea edo artxiboa. (DOI edo URL)

Adib.:

Zirilli, C. (2020). *Nuevas tecnologías y aprendizaje escolar* [Doktorego tesia. Universidad de Almería]. Teseo.

Kintana, A. (2017). *Teknoyonkien garaian hezkuntzaren erronkak*. [Master amaierako lana. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/23751>



Izenburua letra etzanean idazten da. Ondoren, kortexteen artean, lan akademiko mota adierazten da, gehi unibertsitatea edo erakunde akademikoa. Iturriari dagokionez, lana eskuratu den datu basea edo artxiboa izango da.

3.7. Nola erreferentziatu klaseko apunteak eta aurkezpenak

///// Zergatik?

Batzuetan, irakasle batek emandako klaseko apunteetara jo dezakegu informazio bila, edo aurkezpenak ere erabil ditzakegu, ikasgelan erabilitakoak edo Internetetik hartuak. Ez dira iturri gomendagarrienak, helburu didaktikoak dituzten sinplifikazioak izan ohi direlako. Iturri horiek erabili ordez, hobe da haien bibliografiara jotzea eta apunte edo aurkezpen horiek oinarrituta dauden iturriak erabiltzea.

///// Nola?

///// Klaseko apunteak aipatzeko, datu hauek behar ditugu:

1. Egilea (irakaslea).
2. Urtea.
3. Material mota.

4. Irakasgaiaren izena.
5. Unibertsitatearen izena.

Klaseko apunteak aipatzean, honela ordenatzen dira datuak:

Abizena(k), Iniziala. (urtea). [Material mota]. Irakasgaiaren izena, Unibertsitatearen izena.

Adib.:

García, J. (2020). [Klaseko apunteak]. Didáctica de la Lengua y la Literatura, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

///// Aurkezpenak erreferentziatzeko, datu hauek behar ditugu:

1. Egilea.
2. Argitalpen urtea.
3. Izenburua (zehazki eta osorik idatzia).
4. Dokumentu mota.
5. Iturria.
6. URL.

Honela ordenatzen dira datuak:

Abizena(k), Iniziala. (urtea). Irakasgaiaren izena [Material mota]. Iturria. URL

Adib.:

Muvdi, J. (2014). Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika [PowerPoint aurkezpena]. SlideShare. <https://es.slideshare.net/jemasilva/didctica-de-la-lengua-y-la-literatura-35772540>

3.8. Nola erreferentziatu baliabide elektronikoak (bloga, web, etab.) eta ikus-entzunezko edo soinu baliabideak

///// Zergatik?

Iturri akademiko nagusiak ez badira ere, eta gehiegi ez erabiltzea gomendatzen den arren, batzuetan beharrezkoa edo komenigarria da blog bat, web orri bat... aipatzea.

///// Nola?

Honako hauek dira baliabide elektroniko bateko testu bat behar bezala aipatzeko behar diren datuak:

1. Egilearen abizena(k) eta izenaren iniziala.
2. Argitalpen data, osorik (urtea, hilabetea eta eguna).
3. Testuaren izenburua (zehazki eta osorik idatzia).
4. Blogaren izena.
5. URL.

///// Blogak

Honela ordenatzen dira datuak:

Abizena, I. (urtea, hilabetea eta eguna). Testuaren izenburua letra biribilean. *Blogaren izena letra etzanean*. URL.

Adib.:

Imbernon, F. (2018ko abenduaren 10a). No es innovación todo lo que reluce. *El diario de la educación*. <https://eldiariodelaeducacion.com/blog/2018/12/10/no-es-innovacion-todo-lo-que-reluce/>



Blog bateko iruzkin edo post bat aipatzean, iruzkin edo post gisa aipatu behar duzu (ikus nola aipatu blog iruzkin bat APA arauen 7. edizioan).

///// Web orriak

Hainbat motatako web orriak daude (gubernuen web orriak, erakundeenak, albisteen webguneak, egile indibidualen orriak...), eta mota bakoitzak bere aipatzeko modua du. Beraz, komeni da kontsultatzea beti APA gida ofizialaren 7. edizioa (2019) edo 4. atalean aipatutako dokumentuak.

Web orrien kasuen aipatu ohi diren datuak:

1. Web orriaren egilearen edo arduradunaren abizena(k) eta izenaren inisiala.
2. Data (halakorik egonez gero, ahalik eta zehatzen).
3. Orriaren izena.
4. URL.

Adib.:

HuffPost albisteen webgunearen aipamena⁹
 Bologna, C. (2019ko urriaren 31). *Why some people with anxiety love watching horror movies*. *HuffPost*. https://www.huffpost.com/entry/anxiety-love-watching-horror-movies_l_5d277587e4b02a5a5d57b59e

Web orri askok ez dute argitalpen datarik. Kasu horretan:

» Datarik gabeko web orria:

(d.g.) laburdura idatzi eta edukia eskuratzeko data jarriko duzu orriaren izenaren ondoren.

Adib.:

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila. (d.g.). Berritzeguneak: Nagusia. 2020ko ekainaren 10ean eskuratua hemen: <http://nagusia.berritzeguneak.net/es/index.php>



Batzuetan, aipatu nahi den informazioa **web orri batean dago**. Dena dela, web orrian jasotako edukia artikulua bat, liburu bat... denean, artikulua, liburu... gisa aipatu behar duzu, ez web orri gisa.

Soilik erabiliko duzu web orri kategoria aipatutako lana beste kategoria batean sailkatu ezin denean.

⁹ Webgune hauek ez dira egunero edo astero argitaratzen diren egunkariak bezalakoak (*Berria*, *El correo*, *The New York Times*, *etab.*). Azken horiek egunkari gisa aipatzen dira eta ez webgune gisa (ikus APA arauen 7. edizioa).

///// Ikus-entzunezko baliabideak

Hainbat motatako ikus-entzunezko baliabideak daude eta aipatzeko modua aldatu egi-ten da kasu batetik bestera. Hortaz, komeni da kontsultatzea beti APA gida ofizialaren 7. edizioa (2019) edo 4. atalean aipatutako dokumentuak. Nolanahi ere, kontuan izan behar da beti aipatze-modua aldatu egingo dela obra osoa bada (adibidez, filmak, telesail osoak, podcastak, webinar-ak, musika-albumak, lan artistikoak, YouTube-ko bideoak) edo lan handiago baten parte den iturria (serie baten atalak, podcast baten atalak, musika album bateko abestiak)

1. Bideoaren egilearen edo arduradunaren abizena(k) eta izenaren inziala.
2. Data (halakorik egonez gero, ahalik eta zehatzen).
3. Bideoaren izena.
4. Dokumentu mota [Bideoa].
5. Iturria, halakorik izanez gero (adib., Youtube).
6. URL.

» Youtubeko bideoa

Adib.:

Montero, B. (2020ko martxoaren 26a). *Los mejores cuentos infantiles* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=rsv-lumpcpg>

Bilboko Hezkuntza Fakultateko Hezkuntza Goiztiarreko Laborategi berria (2020ko martxoaren 4a). [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=AOdLm-fN5DQA>

» Grabatutako mintegia

Adib.:

Goldberg, J. F. (2018). *Evaluating adverse drug effects* [Webinar]. American Psychiatric Association. <https://education.psychiatry.org/Users/ProductDetails.aspx?ActivityID=6172>

» Soinu dokumentua

Adib.:

Musika albuma (osoa):

Bowie, D. (2016). *Blackstar* [Albuma]. Columbia.

» Album bateko abestia:

Adib.:

Beyoncé. (2016). Formation [Abestia]. On *Lemonade*. Parkwood; Columbia.



Kontuz! Ezin konta ahala mota eta aldaera daude baliabide ele-
ktronikoen eta ikus eta soinu baliabideen artean, eta horregatik
ezinezkoa da hemen adibide eta azalpen bana ematea. Ohikoenak
bakarrik aipatu ditugu. Beste dokumentu mota batzuk nola aipatu
jakiteko, ikus APA arauak (7. edizioa).

4

Non bilatu zalantzak argitzeko informazioa


Edozein zalantza izanez gero, komeni da kontsultatzea beti American Psychological Association erakundeak argitaratutako gidak edo eskuliburu ofizialak, edo haren bloga:

////// American Psychological Association. (2019). *Concise Guide to APA Style* (Seventh edition).

////// American Psychological Association. (2019). *Manual of the American Psychological Association. The Official Guide to APA Style* (Seventh edition).

////// American Psychological Association. (d.g.). APA Style blog. <https://apastyle.apa.org/blog/>

////// American Psychological Association. (d.g.). APA Style. <https://apastyle.apa.org/>



1 ERANSKINA: Nola aipatu eta erreferentziatu datuak falta direnean

Falta den datua	Irtenbidea	Aipua	Erreferentzia
Egilea	Idatzi izenburua, data eta iturria	(Izenburua, urtea) Izenburua (urtea)	Izenburua. (urtea). Iturria.
	*Testua anonimotzat hartzen denean: Idatz 'anonimoa' egilearen izenaren ordez	(Anonimoa, urtea) Anonimoa (urtea)	Anonimoa. (urtea). Iturria.
Urtea	Idatzi egilea, "d.g." (datarik gabe), izenburua eta iturria	(Egilea, d.g.) Egilea (d.g.)	Egilea. (d.g.). Izenburua. Iturria.
Izenburua	Idatzi egilea eta urtea, zehaztu dokumentua kortexteen artean, eta iturria.	(Egilea, urtea) Egilea (urtea)	Egilea. (urtea). [Zehaztu lana]. Iturria.
Egilea eta urtea	Idatzi izenburua, "d.g." (datarik gabe) eta iturria.	(izenburua, d.g.) Izenburua (d.g.)	Izenburua. (d.g.). Iturria.
Egilea eta izenburua	Zehaztu dokumentua kortexteen artean, idatzi data eta iturria	([Zehaztu lana], urtea) [Zehaztu lana] (urtea).	[Zehaztu lana]. (urtea). Iturria.
Urtea eta izenburua	Idatzi egilea, "d.g." (datarik gabe), zehaztu dokumentua kortexteen artean eta iturria	(Egilea, d.g.) Egilea (d.g.)	Egilea. (d.g.). [Zehaztu lana]. Iturria.

2 ERANSKINA: Aldaketak APA arauetan (6. ediziotik 7. ediziora)

///// Aipuak testuan

1. Hiru egile edo gehiago dituzten aipuak laburtu egiten dira, lehenengo egilea aipatuz eta *et al.* erantsita. Lehen, sei egile edo gehiago zituzten kasuetan egiten zen.

Lehen: Datuen arabera, aldez aurreko musika ezagutzarik ez duten ikasleek zailtasun handiak izan ditzakete gaitasun musikal eta didaktikoak eskuratzeko beren garapen profesionalerako (Faubel, Stephens eta Molina Valero, 2013)

Orain: Datuen arabera, aldez aurreko musika ezagutzarik ez duten ikasleek zailtasun handiak izan ditzakete gaitasun musikal eta didaktikoak eskuratzeko beren garapen profesionalerako (Faubel *et al.*, 2013)

///// Erreferentziak

1. Liburuen erreferentzietan ez da idatzi behar argialetxearen kokapen geografikoa.

Lehen: Bernstein, L. (2002). *El maestro invita a un concierto*. Madrid: Siruela.

Orain: Bernstein, L. (2002). *El maestro invita a un concierto*. Siruela.

2. Gehienez 20 egile aipa daitezke, abizenekin eta izenaren inzialekin, etenpuntuak erabiliz gainerakoak aipatu gabe utzirik. Lehen, zazpi aipa zitezkeen gehienez. Gainera, 'eta' juntagailua idatzi behar da azken egilearen aurretik. 21 egile edo gehiago direnean, lehenengo 19ak aipatu, etenpuntuak jarri eta azken egilea aipatzen da, 'eta' juntagailua sartu gabe.

Lehen: Álvarez, T., Bertrán, C., Caballero, A., Cebrián, A., Gómez, L., Luque, P., ... Zafra, J. (2016). La música vista a través de futuros docentes: ¿la formación musical sirve a los futuros maestros generalistas de Primaria? *Educación y Pedagogía*, 14, 52-74.

Orain (20 egile gehienez): Álvarez, T., Bertrán, C., Caballero, A., Cebrián, A., Gómez, L., Luque, P., Más, N., Meraga, N., Nieto, Y., Perich, M., Solé, A., Terradellas, A. M., Tintó, S., Trius, I., Vicario, C., Villacampa, E., Vicens, M., Whitehosue, A., eta Zafra, J. (2016). La música vista a través de futuros docentes: ¿la formación musical sirve a los futuros maestros generalistas de Primaria? *Educación y Pedagogía*, 14, 52-74.

Orain (21 egile edo gehiago): Kalnay, E., Kanamitsu, M., Kistler, R., Collins, W., Deaven, D., Gandin, L., Iredell, M., Saha, S., White, G., Woollen, J., Zhu, Y., Chelliah, M., Ebisuzaki, W., Higgins, W., Janowiak, J., Mo, K. C., Ropelewski, C., Wang, J., Leetmaa, A., ... Joseph, D. (1996). The NCEP/NCAR 40-year reanalysis Project. *Bulletin of the American Meteorological Society*, 77(3), 437-471. [https://doi.org/10.1175/1520-0477\(1996\)077%3C0437:TNYRP%3E2.0.CO;2](https://doi.org/10.1175/1520-0477(1996)077%3C0437:TNYRP%3E2.0.CO;2)

3. DOI identifikatzaileari dagokionez, URL bat sartu behar da 'DOI' aurrizkiaren ordean.

Lehen: López García, N., Madrid Vivar, D. eta De Moya Martínez, M. V. (2017). La formación musical en los planes de estudios para maestros de Primaria en la Universidad de Castilla-La Mancha. *Estudios Pedagógicos*, 43(1), 423-438. DOI: 10.4067/S0718-07052017000100024

Orain: López García, N., Madrid Vivar, D. eta De Moya Martínez, M. V. (2017). La formación musical en los planes de estudios para maestros de Primaria en la Universidad de Castilla-La Mancha. *Estudios Pedagógicos*, 43(1), 423-438. <https://doi.org/10.4067/S0718-07052017000100024>

4. URLen aurretik ez da idatzi behar "hemen eskuratua", eskuratze data zehaztu behar denean izan ezik. Web orriaren izena idazten da (egilearen izenarekin bat datorrenean izan ezik), eta orriaren izena, letra etzanean.

Lehen: American Psychiatric Association. (2013). *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (5th ed.). American Psychiatric Association. Hemen eskuratua: <https://doi.org/10.1176/appi.books.9780890425596>

Orain: American Psychiatric Association. (2013). *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (5th ed.). <https://doi.org/10.1176/appi.books.9780890425596>

